



UHARTE ARAKIL ARTZAI EGUNA

☎ 948 46 40 11 ✉ info@artzaieguna.eus

Teléfono: 948 46 40 11

Correo electrónico: info@artzaieguna.eus

Makina bidezkoa ardi mozte lehiaketaren oinarriak

Inskripzioa

1. Lehiaketa egiten den tokian bertan izango da, frontoi irekian, egunean bertan, txapelketa baino ordubete lehenago.
2. Izen-emate orria bete behar da.
3. Izena ematean moztaille bakoitzak bazkarirako txartela jasoko du.

Lehiaketa

1. Parte hartze ordena zozketa bidez ezarriko da, bai sailkatze txandan eta baita azken txandan ere.
2. Epailleek erabakiko dute zenbat ardi moztuko dituzten txanda bakoitzean.
3. Puntuazioa:
 - a. Denbora eta kalitatea hartuko dira kontuan.
 - b. Denbora epailleak bat, bi eta hiru esatean hasi, eta ardia itxituran sartu eta makina itzaltzean amaituko da.
 - c. Ardi txanda bakoitza moztetan emandako 15 segundo bakoitzeko puntu bat emango zaio moztaileri.
 - d. Kalitatea epailleek emandako balio guztiak txanda bakoitzean moztaille bakoitzak moztutako ardi kopuruarekin zatituko da.
4. Berdinketa izanez gero, denbora gutxien eman duena izango da aurretik.
5. Bi txanda izango dira:
 - a. Sailkatze txandan puntuazio baxuena lortu duten 4 moztailleak aukeratuko dira.
 - b. Azken txandan sailkatze txandan erabilitako irizpide berak erabiliko dira.

Sariak

3 balio txikienak lortzen dituzten moztailleek jasoko dute saria.

1. Trofeoa, txapela eta 275 €
2. Trofeoa eta 200 €
3. Trofeoa eta 150 €



Aralar Mendi Elkartea

Donibane Enparantza, 3. 31840 Uharte Arakil | 948 46 40 11 |

aralarmendielkartea@gmail.com